

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 1,4 igo dira 2022ko apirilean


Urte arteko terminoetan, 2022ko apirilean 2021eko apirilaren aldean, kostuak % 11,9 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 1,4 igo da 2022ko apirilean, aurreko hilaren aldean. Aurreko urteko hil beraren aldean, kostuak % 11,9 igo dira.

Etzegintzaren sektoreko kostuak % 1,4 igo dira hil arteko terminoetan, eta Obra Zibilekoak % 1,3. 2021eko apirilaren aldean, prezioak % 11,1 igo dira Etzegintzan eta % 15,7 Obra Zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka

Ehunekoa



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren, 2022ko martxoaren, aldean, **lehengaien** kostuak % 1,8 igo dira, eta **eskulanaren** kostua, ordea, berean mantendu da (% 0,0). Urtetik urterako terminoetan, lehengaien kostuak % 13,9 egin du gora, eta eskulanarenak % 5,8.

Etxegintzaren sektorean, lehengaien kostua % 1,8 igo da hilabete batetik bestera, eta Obra Zibilean, berriz, % 1,7 igo da. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 12,8 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 18,8.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Apirila 2022

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	119,8	1,4	11,9
Eraikinak	119,2	1,4	11,1
Obra zibila	122,3	1,3	15,7
Lehengaiak	120,7	1,8	13,9
Eraikinak	119,9	1,8	12,8
Obra zibila	124,1	1,7	18,8
Laneskua	116,7	0,0	5,8

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Maiatzaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektoreak kontsumituriko lehengaien prezioei dagokienez, 2022ko apirilean, 2021eko apirilaren aldean, sektore hauetan izan dira igorarik handienak: *Energia elektrikoa eta gasa* (% 71,8 gora), *Petrolioia fintzea* (% 61,9) eta *Metalurgia* (% 36,5 gora kostuetan). Lehengaien prezioetan hazkunde apalenak izan dituzten sektoreak, aldiz, hauexek izan dira: *Makineriaren fabrikazioa* (% 4,4ko igoera), *Material elektrikoa* (% 5,1eko igoera) eta *Altzarien fabrikazioa* (% 5,4koa).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Apirila 2022

	m / m-12
Ezmetalezko meak	9,1
Zuraren eta kortxoaren industria	25,6
Petrolio finntzea	61,9
Industria kimikoa	30,1
Kautxua eta plastikoa	7,9
Produktu mineral ez-metalezkoak	9,5
Metalgintza	36,5
Metalezko artikulak	17,3
Material elektronikoa	11,6
Material elektrikoa	5,1
Makineriaren fabrikazioa	4,4
Altzarigintza	5,4
Energia elektrikoa eta gasa	71,8

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Maiatzaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62